

PRENTSA OHARRA

Agustin Azkaratek eta Ane Zulaikak jaso dute 2021eko Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa sariak

- Agustin Azkarate historialari eta arkeologoari 2021eko Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Saria eman diote gaur Gasteizko Santa Maria Katedralean.
- Ane Zulaika ikus-entzunezko sortzaile gaztea ere aintzatetsi da Iñigo Urkullu lehendakariak eta Ana Ollo Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetarako kontseilariak parte hartu duten ekitaldian.

Gasteiz, 2021ko azaroak 9. Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien 2021eko Saria emateko ekitaldia izan da astearte honetan, azaroak 9, Gasteizen, erakundeetako ordezkarien eta zientzia- eta kultura-arloko pertsona ezagunen presentzia zabalarekin.

Aukeratutako lekua egiteko ezin egokiagoa izan da: Gasteizko Santa Maria Katedrala, zeinaren berritze-planaren inspiratzaile intelektuala eta zuzendari zientifikoa izan baitzen sarituetako bat, Historian doktore eta Euskal Herriko Unibertsitateko Arkeologia katedradun, Agustin Azkarate Garai-Olaun.

Ekitaldia hasi da 2019az geroztik 35 urtetik beherako gazteek aurkeztutako ikerketa- edo sorkuntza-proiektuak babesten dituen Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Gazte Sariaren banaketarekin. Maialen Olabe, epaimahaiko bozeramaileak, Ane Zulaika Aranburu ikus-entzunezkoen sortzailearen "Emakumeak Blai" lana definitu du: "Emakume gazte baten ikuspegitik, ezkutuan zegoen emakumeen errealtitatea agerian uzten duen lana da". Saria jaso ondoren, Ane Zulaikak "protagonismorik izan ez duten emakume batzuen istorioak biltzeko" izaera azpimarratu du bere proiektuan. Emakumearen, euskararen eta ondarearen garrantzia nabarmendu nahi duen film labur batean islatuko da hori guztia.

Eva Ferreira García Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak hitzaldien txanda ireki du, Agustin Azkarateren irakaskuntza- eta

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus

+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)



ikerketa-lana azalduz, bere ustez, “bere diziulinaren esparru espezifikoan, Arkeologia, gainditzen baitu, beste espezialitate batzuekin elkarritzeta konplexu eta emankorra garatzeko”. Baino horretaz gain, errektoreak adierazi duenez, bere lanean “badago ezagutza transferitzeko anbizio handia” eta beste esparru eta diziiplina batzuetara aplikatzeko alderdi bat.

Ondoren, Sariaren erakunde babesleen ordezkari gorenek hartu dute hitza. Alde batetik, Txomin García LABORAL Kutxako lehendakariak, Azkarate irakasleak bere espezializazio-arlotik harago indarrak mobilizatzeko duen gaitasuna azpimarratu du. Diziulina anitzeko eta lankidetzako dimentsioa, gazteen prestakuntzari nahiz mundu akademikoaren eta erakunde publiko eta pribatuen arteko zubiak ezartzeari aplikatzen zaiona. “Finean, pertsona berritzailea eta oso eskuzabala, ondare kultural, sozial eta zientifiko garrantzitsua utzi duena”, Txomin Garcíaren hitzetan. Gazte Sariaren irabazleari dagokionez, ondarea berreskuratzeko egindako lanaren balioa azpimarratu du, “hausnarketetarako espazio berriak sortuko dituelako”.

Bestalde, Eusko Ikaskuntzako lehendakari Ana Urkizak, Agustin Azkarateren ibilbidea kokatu du Araban XX. mendearen hasieran Eusko Ikaskuntzaren kide sortzaile diren Eguren, Barandiaran eta Aranzadi euskal arkeologiaren aitzindariekin hasitako lanetan; Ian horiek, Gerra Zibilaren eta gerraosteko lehen parentesiaren ondoren, Arabako Arkeologia Institutuak hartu zituen. Urkizak honela definitu du saritua: “Ondarearen Zientziaren arkeologo, irakasle, sustatzaile eta sozializatzailea; ezagutzaren ikertzaile eta esploratzailea, elkarlanaren, ahalegin bateratuaren eta helburu komunen inguruari sinergiak sortzearen aldeko apustua egiten dugunok inspiratu eta bultzatzen dituena”. Ane Zulaikari dagokionez, emakumea ikusarazteko planteamendua goraipatu du, “familia-dokumentazioan eta mikrohistorian murgiltzea proposatu du, euskal emakumearen memoria kolektiborako tresna gisa”.

Epaimahaiaren akta irakurrita, Agustin Azkaratek Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa 2021eko Saria egiaztatzen duen diploma jaso du. Eskerrak emateko, “Anboto eta Udalaitz begien bistan” dituen baserri batean bere familiaren jatorria eta haurtzaroa gogoratu ditu. Saria Vitoria-Gasteizi eskaini dio, “duela ia berrogei urte adoptatu ninduen

eta naizen guztia zor diodan hiriari". Arabako hiriburuak, hiri "aitzindari eta berritzairen" gisa, "ondarearen kudeaketa modu integralean, natura eta kultura uztartuz, sortzeko eta eraldatzeko ahalmen handia duen formula dela erakusten du". Eta, azkenik, honako hau ziurtatu du: "Oinordetzan jasotako ondareak, izan ginaren memoriak, nortasun propioa ematen digu, berezi egiten gaitu, behin betiko indartzen gaitu, globalizazioaren marea geldiezinari arrakastaz aurre egiteko".

Nafarroako Foru Gobernuko Herritarrekiko Harremanetarako kontseilari Ana Ollorentzat, gure lurraldea Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzietan modu eraginkorrean eta errealean garatzen laguntzen duten ibilbideak aintzatesten dituen sari bat ezin da Nafarroatik kanpo geratu. "Bere dimentsio humanistiko, kultural, artistiko eta sozial nabarmenagatik", Azkarate irakaslearen mailako pertsonek "harro sentiarazten gaituzte, ezagutzaren aldeko apustua egiten duen gizarteak soilik aurrera egin dezakeela uste dugunoi". Era berean, Ane Zulaikaren lana eskertu du: "Emakumea eta gazteria erreferente intelektual bihurtzen diren euskal gizartearen onena ikusten". Kontseilariak ez du bere hitzaldia itxi nahi izan Eusko Ikaskuntza nabarmendu gabe, "bere independentziagatik, aniztasun ideologikoagatik, errespetuaren eta elkarritzetaren alde egindako lanagatik", Nafarroako Gobernuak balio horiek partekatzen baititu.

Ekitaldiaren amaieran, Iñigo Urkullu lehendakaria Azkarate irakasleari esker ona azaldu dio "Eusko Jaurlaritzaren solaskide etengabea izan da, bere ideiak eta proposamenak aurkeztu ditu eta bere lankidetza eskaini du aholkua eskatu diogun bakoitzean". Bikaintasun profesionalaren adierazgarri dira Gasteizko Santa Maria Katedrala berritzeko plana eta "20 urtez katedrala berreraikitzeko abenturaren berri herritarrei eman zien kontzeptu eredugarria". Lehendakariak Ane Zulaika ere zoriondu du. Izan ere, "begirada gazteak ere behar ditugu, bai, iragana ulertzeko eta gizarte arduratsu bat eraikitzen jarraitzeko".

Ekitaldia 2020ko Gazte Sariaren irabazleek, Alexander Gurrutxagak eta Joana Otxoak musikaz alaitu dute, eta erreptorioko hiru pieza interpretatu dituzte.

NOTA INFORMATIVA

Agustín Azkarate y Ane Zulaika reciben los premios Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa 2021

- *La Catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz ha acogido hoy la entrega del Premio Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa 2021 al artífice de su renovación, el historiador y arqueólogo Agustín Azkarate.*
- *El Lehendakari Iñigo Urkullu y la Consejera de Relaciones Ciudadanas del Gobierno de Navarra, Ana Ollo, han participado en el acto en el que también se ha reconocido a la joven creadora audiovisual Ane Zulaika.*

Vitoria-Gasteiz, 9 de noviembre de 2021. Con numeroso público y amplia presencia de representantes institucionales y de personalidades de los ámbitos científico y cultural, este martes, 9 de noviembre, en Vitoria-Gasteiz ha tenido lugar la ceremonia de entrega de los Premios Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales 2021.

El marco elegido para el acto no podía ser más idóneo: la Catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz, de cuyo plan de renovación fue inspirador intelectual y director científico uno de los premiados, Agustín Azkarate Garai-Olaun, doctor en Historia y catedrático de Arqueología de la Universidad del País Vasco.

La ceremonia se ha abierto con la entrega del Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Gazte Saria que desde 2019 respalda proyectos de investigación o de creación presentados por jóvenes menores de 35 años. El proyecto ganador, “Emakumeak Blai”, de la creadora audiovisual Ane Zulaika Aranburu, ha sido definido por la portavoz del jurado, Maialen Olabe, como un “trabajo que, desde la mirada de una mujer joven, pone de manifiesto una realidad femenina que había permanecido oculta”. Tras recoger el premio, Ane Zulaika ha subrayado ese carácter de “recopilación de historias de algunas mujeres que no han tenido protagonismo” y que se plasmará en un cortometraje con el que pretende poner en valor la importancia de la mujer, el euskera y el patrimonio.

La Rectora de la Universidad del País Vasco, Eva Ferreira García, ha abierto el turno de intervenciones glosando la labor docente e investigadora de Agustín Azkarate que, a su juicio, trasciende “el ámbito específico de su disciplina, la Arqueología, para desarrollar un diálogo complejo y fructífero con otras especialidades”. Pero además de esto, ha afirmado la Rectora, hay en su trabajo “una vertiente de transferencia de conocimiento enormemente ambiciosa” y de aplicación a otros ámbitos y disciplinas.

A continuación, han tomado la palabra el y la máxima representante de las entidades patrocinadoras del Premio. Por un lado, Txomin García, Presidente de LABORAL Kutxa, ha puesto el acento en la capacidad del profesor Azkarate para movilizar fuerzas más allá de su área de especialización. Dimensión pluridisciplinar y de cooperación que aplica tanto a la formación de la juventud como al tendido de puentes entre el mundo académico y las organizaciones públicas y privadas. “En definitiva, una persona innovadora y muy generosa, que deja un importante legado cultural, social y científico”, en palabras de Txomin García. En cuanto a la ganadora del Gazte Saria, ha apuntado hacia el valor de su trabajo de recuperación del patrimonio que “generará nuevos espacios para las reflexiones”.

Por su parte, Ana Urkiza, Presidenta de Eusko Ikaskuntza, ha inscrito la trayectoria de Agustín Azkarate en la labor iniciada en Álava a comienzos del siglo XX por los pioneros de la arqueología vasca, Eguren, Barandiaran y Aranzadi, miembros fundadores de la Sociedad de Estudios Vascos; labor que, tras el paréntesis de la Guerra Civil y la primera posguerra, fue retomada por el Instituto Alavés de Arqueología. Urkiza ha definido al premiado como “arqueólogo, docente, promotor y socializador de la Ciencia del Patrimonio; investigador y explorador del conocimiento”, que inspira y alienta “a quienes apostamos por la colaboración, el esfuerzo conjunto y la generación de sinergias en torno a objetivos comunes”. Respecto a Ane Zulaika ha elogiado su planteamiento de visibilización de la mujer, “propone bucear en la documentación familiar y la microhistoria como vehículo para una memoria colectiva de la mujer vasca”.

Una vez leída el acta del jurado, Agustín Azkarate ha recibido el diploma que le accredita como Premio Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa 2021. En el agradecimiento ha recordado sus orígenes familiares y su infancia en un caserío “con Anboto y Udalaitz a la vista”. Ha dedicado el premio a

Vitoria-Gasteiz, “ciudad que me adoptó hace casi cuarenta años y a la que debo todo lo que soy”. La capital alavesa, ha afirmado, como ciudad “pionera e innovadora”, demuestra cómo “la gestión del patrimonio de manera integral, combinando naturaleza y cultura, es una fórmula con un gran potencial de creación y transformación”. Y ha terminado asegurando: “El patrimonio heredado, la memoria de lo que fuimos, nos dota de identidad propia, nos singulariza, nos fortalece definitivamente para hacer frente con éxito a la imparable marea de la globalización”.

Para Ana Ollo, Consejera de Relaciones Ciudadanas del Gobierno Foral de Navarra, un premio que reconoce trayectorias que contribuyen de manera efectiva y real al desarrollo de nuestro territorio en Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales, no puede ser ajeno a Navarra. Por “su notable dimensión humanística, cultural, artística y social”, personas de la talla del profesor Azkarate “nos enorgullecen a quienes creemos que esta sociedad solo podrá avanzar si apostamos por el conocimiento”. Asimismo, ha agradecido el trabajo de Ane Zulaika: “visibiliza lo mejor de una sociedad vasca en donde la mujer y la juventud se convierten en referentes intelectuales”. No ha querido cerrar su intervención la Consejera sin destacar a Eusko Ikaskuntza “por su independencia, por su pluralidad ideológica, por su labor a favor del respeto y del diálogo”, valores que, según ha dicho, comparte el Gobierno de Navarra.

En la clausura de la ceremonia, el Lehendakari Iñigo Urkullu se ha hecho portavoz del agradecimiento de la máxima institución de la Comunidad Autónoma Vasca hacia el profesor Azkarate, quien “ha sido un constante interlocutor del Gobierno Vasco, aportando sus ideas y propuestas y prestando su colaboración cada vez que le hemos pedido consejo”. Expresión de su excelencia profesional es el Plan de renovación de la Catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz, “y el modélico concepto que hizo partícipe a la ciudadanía de la aventura de su reconstrucción durante 20 años”. También ha felicitado el Lehendakari a Ane Zulaika. Porque “también necesitamos miradas jóvenes, sí, para entender el pasado y seguir construyendo una sociedad responsable”, ha concluido.

La ceremonia ha estado amenizada musicalmente por los ganadores del Gazte Saria 2020, Alexander Gurrutxaga y Joana Otxoa, quienes han interpretado tres piezas de su repertorio.